

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**

EDIKTUA, Iurgi Sanz Inorizak jarritako gora jotzeko errekurtsioa onesteko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzu sailburuordeak 2008ko apirilaren 29an emandako Ebazpena jakinarazteko dena. 16070

KULTURA SAILA

IRAGARKIA, interesdunei martxoaren 11ko 44/2008 Dekretua jakinarazteko dena. Dekretu horren bidez, Añanako (Araba) Zambrana-Herran sendiaren Jauregia, Monumento izendapenez, Kultura Ondasun gisa deklaratzeko da. 16070

Pribatuen Iragarkiak**ZARAOBE BHI**

IRAGARKIA, batxilergoko titulu bat (Giza eta Gizarte-Zientzien modalitatea) galdu dela jakinarazteko. 16071

EMILIO CAMPUZANO BHI

IRAGARKIA, teknikari laguntzaile eta teknikari espezialista tituluak (adarra: kimika, lanbidea: laborategiko kimika) galdu dela jakinarazteko. 16072

Xedapen Orokorrak**JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA**

3741

6/2008 EBAZPENA, ekainaren 2koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariarena, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakia argitaratzeko dena. Gaia: Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzea.

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2008ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

EDICTO por el que se notifica la Resolución de 29 de abril de 2008, del Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se estima el recurso de alzada interpuesto por don Iurgi Sanz Inoriza. 16070

DEPARTAMENTO DE CULTURA

ANUNCIO por el que se notifica a los interesados el Decreto 44/2008, de 11 de marzo, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, el Palacio de los Zambrana-Herrán, sito en Añana (Álava). 16070

Anuncios Particulares**IES ZARAOBE BHI**

ANUNCIO relativo al extravío de un Título de Bachiller en la Modalidad de Humanidades y Ciencias Sociales. 16071

IES EMILIO CAMPUZANO

ANUNCIO relativo al extravío de los Títulos de Técnico Auxiliar y Técnico Especialista en la Rama Química, Profesión: Química de Laboratorio. 16072

Disposiciones Generales**VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO**

3741

RESOLUCIÓN 6/2008, de 2 de junio, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno «sobre incorporación de criterios sociales, ambientales y otras políticas públicas en la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma y de su sector público».

Habiéndose aprobado por el Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 29 de abril de 2008, el Acuerdo «sobre incorporación de criterios sociales, ambientales y otras políticas públicas en la contratación

publikoak barne hartzea erabaki zuen. Orain, beharrezko zabalkundea emateko xedez, honako hau,

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzeari buruzko erabakiaren testua, eranskin gisa doana, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko ekainaren 2a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako
eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JOSÉ LUIS ERREKATXO LABANDIBAR.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN
IDAZKARITZAKO ETA
LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN
EKAINAREN 2KO 6/3008 EBAZPENARENA

AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIOAREN ETA BERE SEKTORE
PUBLIKOAREN KONTRATAZIOAN GIZARTE
IRIZPIDEAK, INGURUMENENKOAK ETA BESTE
POLITIKA PUBLIKOAK BARNE HARTZEARI
BURUZKO AKORDIOA

Eusko Legebiltzarrak 2007ko ekainaren 8an egindako bilkuran, kontratazio-prozeduretan klausula sozialak gehitzeari buruzko legekoa ez den proposamena onetsi zuen; proposamen horren testu osoa 2007-06-15eko 107 zenbakiko Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legekoa ez den proposamen horrek Eusko Jaurlaritzari ordenamendu juridikoak ahalbidetutako neurrian kontratazio publikoa erabiltzeko eskatzen dio gizarte bazterkeriari aurka egiteko, pertsona ezinduek edo lana lortzeko zailtasunak dituzten pertsona bereziak lan-mundura sartzeko bitarteko eraginkor bezala, baztertua geratzeko arriskua gutxitzen lagun dezan.

Horretarako, Batzorde Tekniko batek, lana, gizarte-gaiak, kontratazioa eta ogasuneko zerbitzu juridikoek osatutakoak, kontratazio-prozeduran eta kontratua betetzean klausula sozialak barne hartzeko aukera analizatzeko eskatzen dio; baita ingurunea, laneko segurtasuna eta osasuna, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta laneko kalitatea eta baldintzak bezalako beste politika publiko batzuekin batera egotea. Ondorioz, batzorde horrek politika publiko horietan Administrazioeko zerbitzu eskudunen parte-hartzea barne hartu du.

de la Administración de la Comunidad Autónoma y de su sector público», y a los efectos de darle la publicidad debida,

RESUELVO:

Artículo único.– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el texto del Acuerdo «sobre incorporación de criterios sociales, ambientales y otras políticas públicas en la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma y de su sector público», que figura como anexo a la presente.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de junio de 2008.

El Director de la Secretaría del Gobierno
y de Relaciones con el Parlamento,
JOSÉ LUIS ERREKATXO LABANDIBAR.

ANEXO A LA RESOLUCIÓN 6/2008,
DE 2 DE JUNIO, DEL DIRECTOR
DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO
Y DE RELACIONES CON
EL PARLAMENTO

ACUERDO SOBRE INCORPORACIÓN DE
CRITERIOS SOCIALES, AMBIENTALES
Y OTRAS POLÍTICAS PÚBLICAS EN LA
CONTRATACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN
DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA Y DE SU SECTOR PÚBLICO

El Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 8 de junio de 2007, aprobó la proposición no de ley sobre inclusión de cláusulas sociales en los procedimientos de contratación, cuyo texto íntegro fue publicado en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco n.º 107, de 15-06-2007.

Dicha proposición no de ley insta al Gobierno Vasco a que, en la medida permitida por el ordenamiento jurídico, utilice la contratación pública como un eficaz instrumento de la lucha contra la exclusión social, en sus diversas manifestaciones, y de incorporación laboral de personas con discapacidad, o especiales dificultades de acceso al empleo, de forma que contribuya a reducir el riesgo de exclusión.

A tal efecto le insta a que una Comisión Técnica, integrada por los servicios jurídicos de empleo, de asuntos sociales, de contratación y de hacienda, analice la posibilidad de introducir cláusulas sociales en el procedimiento de contratación y en la ejecución del contrato; así como, su coexistencia con otras políticas públicas como la medioambiental, la de seguridad y salud laboral, la de igualdad de la mujer y el hombre, la calidad y las condiciones de empleo. En consecuencia, dicha Comisión ha incorporado la participación de los servicios de la Administración competentes en dichas políticas públicas.

Aipatu Batzorde Teknikoa osatu eta dagokion proposamena egin ondoren, jarraibide edo zerbitzu-agindu bezala, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 21.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordearen txostenaren ondoren, eta lehendakariak, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak, Justizia Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak (2008ko apirilaren 29an egindako saioan), aurretiaz eztabaidatu ondoren, honakoa:

EBATZI DU:

«Lehenengoa.— Helburua.

Erabaki honen helburua eranskinean datorren Jarraibidea onestea da; horren bidez gizarte irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuetatik eratorritakoak Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoa osatzen duten erakundeen kontratazioan barne hartzen da.

Bigarrena.— Ebaluazioa eta jarraipena.

Kontratazio-organoei kasuan kasuko espedienteak prestatu eta onesteko eta kontratuak behar bezala betetzeko esleitutako ahalmenen kaltetan izan gabe, lana, gizarteratzea, gizarte gaiak eta ingurumenaren arloan eskumena duten Sailek Jarraibide hau betetzen dela aldizka ebaluatuko dute bakoitzaren eskumen-esparruarekin loturiko alderdiei dagokienez. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoak ebaluazio berbera egingo du emakumeen eta gizonen berdintasunari eta genero-ikuspegia barne hartzeari dagokienez.

Ebaluazioak kontratuen baldintzen agirien aurreikuspenak zein agiri horiek esleipen-prozeduran eta kontratua betetzean aplikatzea hartuko ditu barne.

Helburu horrekin, aipatu erakunde eta sailek kontratazio-organoei beren betebeharrak behar den bezala betetzeko dokumentazioa eta informazio guztia lortu ahal izango dute, baita Administrazio orokorrak, bere erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sektore publikoko gainontzeko erakundeak egindako kontratazioei buruz Ogasun eta Herri Administrazio Sailak dituen datu estatistikoak eskuratu ere.

Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sektore publikokoa den sail, erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko eta erakunde bakoitzak, urtero, aurrekontu-ekitaldiaren amaieran kontratuen erreserbari buruzko txostena aurkeztuko du, Jarraibidearen IV. epigrafean agertzen dena eta esleitutako zenbatekoa, kontratu-mota eta jarduera-alorra adierazten

Constituida la referida Comisión Técnica y elaborada la correspondiente propuesta, con el carácter de instrucción u orden de servicio, de acuerdo con lo previsto en el artículo 21.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, previo informe de la Junta Asesora de la Contratación Administrativa, y a propuesta del Lehendakari, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales y de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, el Consejo de Gobierno, previa deliberación, en su sesión celebrada el día 29 de abril de 2008, adopta el siguiente

ACUERDO

«Primero.— Objeto.

El presente Acuerdo tiene por objeto aprobar la Instrucción, contenida en su anexo, para la incorporación de criterios sociales, medioambientales y los derivados de otras políticas públicas en la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma y de las entidades que integran su sector público.

Segundo.— Evaluación y seguimiento.

Sin perjuicio de las facultades atribuidas a los órganos de contratación para la preparación y aprobación de los correspondientes expedientes y para el control de la correcta ejecución de los contratos, los Departamentos competentes en materia de empleo, inserción social, asuntos sociales y medio ambiente evaluarán periódicamente el cumplimiento de la presente Instrucción en los aspectos relacionados con su ámbito competencial. Idéntica evaluación realizará el organismo autónomo Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer en lo relativo a la igualdad de mujeres y hombres y a la incorporación de la perspectiva de género.

La evaluación abarcará tanto las previsiones de los pliegos de los contratos, como su aplicación en el procedimiento de adjudicación y en la propia ejecución del contrato.

Con este fin, los organismos y departamentos mencionados podrán recabar de los órganos de contratación toda la información y documentación que necesiten para desempeñar correctamente su cometido, así como, acceder a los datos estadísticos de que disponga el Departamento de Hacienda y Administración Pública sobre las contrataciones realizadas por la Administración general, sus organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y demás entidades del sector público.

Cada departamento, organismo autónomo, ente público de derecho privado y entidad perteneciente al sector público de la Administración de la Comunidad Autónoma presentará anualmente al final del ejercicio presupuestario un informe relativo a la reserva de contratos, contemplada en el epígrafe IV de la Instrucción, que comprenda el importe adjudicado, el tipo de con-

dituena. Lortutako datuak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailera bidaliko dira zenbaketa orokorra egin eta hurrengo ekitaldirako gordetako zenbatekoa proposatzeko.

Hirugarrena.— Kontratazio-organoei laguntza ematea.

Beren eskumenen arloan, aurreko atalean aipatutako sailek eta erakundeek kontratazio-organoei Erabaki hau betetzeko behar den aholkularitza eta laguntza teknikoa emango dizkie. Ahal den neurrian, laguntza hori eskuliburuak edo dokumentu normalizatuak eginda ere emango da.

Halaber, ebaluatzeko eta jarraipena egiteko betebeharrak betetzea erraztu eta Jarraibidea, batez ere, II., IV. (1. atala), V.4 (3. atala), V.5 (2. atala), VI.3 eta IX.2 (4. atala) izenpeetan aipatutakoak modu eraginkorren aplikatzeko behar den laguntza emate aldera, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak bere eskumenen arloan egokiak diren neurriak sustatuko ditu aurrekontuko, prestakuntzako eta giza baliabideetako beharrak ikusiz gero eta, hala denean, planteatu daitezkeenak.

Laugarrena.— Arautegiaren aldaketetara egokitzea eta administrazio-klausula berezien baldintzen agirien eredu tipotetan barne hartzea.

1.— Kontratu-motaren arabera kontratuaren edozein helburutara aplikatu daitezkeen Jarraibidearen edukia 2007ko maiatzaren 22ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiak onetsitako administrazio-klausula berezien baldintzen agiri-moten ereduera gehituko da (EHAA, 246. zk., 2007ko abenduaren 24koa). Horretarako, Ondare eta Kontratazio zuzendariaren Ebazpenaren bidez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dena, eredu horietan gehituko diren eduki zehatzak mugatuko dira.

2.— Halaber, aipatu Ebazpenak eredu horiek Sektore Publikoko Kontratuaren Lege berrira egokituko ditu eta, hala denean, Lege horren aurkako bihurtu diren edukiak kenduko ditu.

Bosgarrena.— Aplikatzeko irizpideak.

Jarraibidea gastu publikoaren betearazpena bideratzen duten eragimen- eta eraginkortasun-printzipioen kaltetan izan gabe aplikatu behar izango da; halaber, gizarte-irizpideak, ingurumenekoak edo beste politika batzuei buruzkoak barne hartzeak ez du inolaz ere kontratazio-organoei eskaintza aukeratzeko edo Administrazioaren kontratu-jarduerara aplikatu daitezkeen printzipio orokorrak hausteko baldintzarik gabeko askatasuna ematea ekarriko, batez ere lehiaren, berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren printzipioak eta zerbitzuak emateko eta ondasunak zirkulatzeko askatasunak.

Kontratazio-organoei gizarte-irizpideak, ingurumenekoak, eta ahal den neurrian politika publikoen

tratos y el sector de actividad. Los datos obtenidos se remitirán al Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social con el objeto de realizar el cómputo global y proponer la cifra reservada para el ejercicio siguiente.

Tercero.— Apoyo a los órganos de contratación.

Dentro del ámbito de sus competencias, los departamentos y organismos citados en el apartado anterior prestarán a los órganos de contratación el asesoramiento y apoyo técnico necesario para el cumplimiento del presente Acuerdo. En la medida de lo posible, dicho apoyo se prestará también mediante la elaboración de manuales o documentos normalizados.

Así mismo, al objeto de facilitar el cumplimiento de las obligaciones de evaluación y seguimiento, así como, la de prestar la colaboración necesaria para la efectiva aplicación de la Instrucción y, en especial, las mencionadas en los epígrafes II, IV (apartado 1), V.4 (apartado 3), V.5 (apartado 2), VI.3 y IX.2 (apartado 4) de la Instrucción, el Departamento de Hacienda y Administración Pública promoverá las medidas oportunas en el ámbito de sus competencias, a la vista de las necesidades presupuestarias, formativas y de recursos humanos que, en su caso, pudieran plantearse.

Cuarto.— Adaptación a las modificaciones normativas e incorporación en los modelos tipo de pliegos de cláusulas administrativas particulares.

1.— El contenido de la Instrucción susceptible de ser aplicado a cualquier objeto contractual según la tipología del contrato, se incorporará a los modelos tipo de pliegos de cláusulas administrativas particulares aprobados por el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 22 de mayo de 2007 (BOPV, n.º 246, de 24 de diciembre de 2007). A tal efecto, mediante Resolución del Director de Patrimonio y Contratación, que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, se delimitarán los concretos contenidos a incluir en dichos modelos.

2.— Así mismo, la referida Resolución realizará las necesarias adaptaciones de dichos modelos a la nueva Ley de Contratos del Sector Público y, en su caso, la supresión de aquellos contenidos que hubieran devenido contrarios a dicha Ley.

Quinto.— Criterios de aplicación.

La Instrucción deberá aplicarse sin menoscabo de los principios de eficacia y eficiencia que rigen la ejecución del gasto público; asimismo, la incorporación de criterios sociales, medioambientales o relativos a otras políticas públicas no podrá suponer en ningún caso la atribución a los órganos de contratación de una libertad incondicionada para la selección de la oferta ni la infracción de los principios generales aplicables a la actividad contractual de la Administración, en especial los de concurrencia, igualdad y no discriminación y las libertades de prestación de servicios y circulación de bienes.

Los órganos de contratación introducirán los criterios sociales, medioambientales, y en la medida de lo posible

gainerako irizpideak gehituko dituzte, ahal dela esleitzeko prozedura bideratzen duten baldintzen agirietan agertzen den kontratuaren xedearen zehaztapen eta deskripzio teknikoan.

Seigarrena.– Ondorioak.

Jarraibidea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera aplikatuko da onetsitako baldintzen agirietan.»

ERANSKINA

KONTRATAZIOAN GIZARTE IRIZPIDEAK, INGURUMENEOAK ETA BESTE POLITIKA PUBLIKOETAKOAK BARNE HARTZEKO JARRAIBIDEA

I

APLIKAZIO EREMUA

1.– Jarraibide hau Administrazio orokorreko, inestruktionaleko kontratazio-organoei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sektore publikoko gainerako erakundeei dago zuzenduta.

2.– Aipatu kontratazio-organoek Jarraibide honetan ezartzen dena errespetatuko dute administrazio-klausulen eta kontratuen legerian araupetutako kontratuen preskripzio tekniko berezien baldintzen agiriak egiteko orduan. Jarraibide honen ondorioetarako, «productos y servicios» eta «productos o servicios» adierazpenek aipatutako edozein kontratu-mota barne hartzen dute.

Kontratu txikietan eta administrazio-klausulen edo preskripzio tekniko berezien baldintzen agiriak egitea eta onestea beharrezkoa ez den gainerako kontratuetan, Jarraibide honetan ezarritako irizpideak kontratuko agirietan eta kasu bakoitzean egiten diren kontratuak prestatzeko agirietan gehituko dira.

3.– Jarraibide honetako ondorengo epigrafeak edozein kontratu-motari aplika daitezke baldin eta bere edukia kontratuaren xedearen ezaugarrietarako egokia bada: II, III, IV, V.2 (1., 3. eta 5. atalak), V.3, V.4, V.5, V.6, VI.1, VI.2, VI.3 (1., 2. eta 4. atalak), VI.4, VI.6, VI.7, VII, VIII, IX.1, IX.2, IX.3, IX.4, IX.6, X, XI eta XII.

Ondoren aipatzen diren epigrafeek eta atalek honako kontratu-mota edo helburuetan eragiten dute:

- a) Obra-kontratuak: V.1, VI.3 (3. atala).
- b) Obra-kontratuak, proiektuak idaztea, hondakinak kudeatzea: VI.4 (2. eta 3. atalak).
- c) Azterketa egiteko kontratua edo laneko segurtasunaren eta osasunaren oinarritzko azterketa: VI.7 (3. atala).

el resto de las políticas públicas, preferentemente en la definición y descripción técnica del objeto contractual contenida en los pliegos que rigen el procedimiento de adjudicación.

Sexto.– Efectos.

La Instrucción se aplicará a los pliegos aprobados a partir del día siguiente al de su publicación en el Boleín Oficial del País Vasco».

ANEXO

INSTRUCCIÓN PARA LA INCORPORACIÓN DE CRITERIOS SOCIALES, AMBIENTALES Y OTRAS POLÍTICAS PÚBLICAS EN LA CONTRATACIÓN

I

ÁMBITO DE APLICACIÓN

1.– La presente Instrucción está dirigida a los órganos de contratación de la Administración general, institucional y demás entidades del sector público de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.– Los referidos órganos de contratación respetarán lo dispuesto en la presente Instrucción en el momento de elaborar los pliegos de cláusulas administrativas y de prescripciones técnicas particulares de los contratos regulados en la legislación de contratos. A efectos de esta Instrucción las expresiones «productos y servicios» y «productos o servicios» comprenden cualesquiera de los tipos contractuales referidos.

En los contratos menores y en los demás contratos en los que no sea obligatoria la elaboración y aprobación de pliegos de cláusulas administrativas o de prescripciones técnicas particulares, los criterios establecidos en la presente Instrucción se incluirán en los documentos contractuales y de preparación del contrato que en cada caso se realicen.

3.– Los siguientes epígrafes de esta Instrucción son aplicables a cualesquiera tipos contractuales siempre que su contenido sea apropiado a las características del objeto del contrato: II, III, IV, V.2 (apts. 1, 3 y 5), V.3, V.4, V.5, V.6, VI.1, VI.2, VI.3 (apts. 1, 2 y 4), VI.4, VI.6, VI.7, VII, VIII, IX.1, IX.2, IX.3, IX.4, IX.6, X, XI y XII.

Los epígrafes y apartados que se señalan a continuación inciden especialmente en los siguientes tipos u objetos contractuales:

- a) Contratos de obras: V.1, VI.3 (apt. 3).
- b) Contratos de obras, redacción de proyectos, gestión de residuos: VI.4 (apts. 2 y 3).
- c) Contratos para la elaboración de estudio o estudio básico de seguridad y salud laborales: VI.7 (apt. 3).

d) Laneko segurtasuneko eta osasuneko koordinatzailearen eginkizunak betetzeko kontratuak: VI.1, VI.7 (4. atala).

e) Ingurumenean kalteak eragin ditzaketen hornidura-kontratuak ez bezalakoak: V.7 eta VI.5.

f) Hornidura-kontratuak: V.2 (2. atala), V.6 (4. atala).

g) Prestakuntza-kontratuak: V.2 (4. atala).

h) Egurra erabiltzea dakarten kontratuak: V.6 (1. eta 4. atalak).

i) Azterlanen eta estatistiken kontratuak: VII.1 (3. atala).

Honako epigrafe eta atalek ingurumeneko irizpideetan eragiten dute bereziki: III.1 V.2 (2. atala), V.3, V.4, V.5, V.6, V.7, VI.4 (3. atala), VI.4 (5. atala), VI.5, VII.2, IX.6

Laneko segurtasun eta osasunean eragiten dute bereziki: III.3, V.1, V.6 (1., 3. eta 4. atalak), VI.3 (3. y 4. atalak), VI.4 (3., 4., 5. eta 6. atalak), VI.7 (2., 3. eta 4. atalak), IX.5, X.

Laneratzean eragiten dute bereziki: IV, IX.2.

Emakumeen eta gizonen berdintasunean eta genero-ikuspegia barne hartzean eragiten dute bereziki: III.2, V.2 (3. eta 4. atalak), VI.4 (1. atala), VII.1 (3. atala), IX.3

Enpleguaren kalitatean eta bestelako gizarte-irizpideetan eragiten dute: V.3, VII.1 (1. eta 2. atalak), VIII, IX.1 (1. eta 4. atalak)

II

INGURUMENAREN BABESA, LANA, LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI DAGOZKIEN BETEBEHARREN INGURUKO INFORMAZIOA

(Administrazio-klausula berezien baldintzen agiriaren karátula)

Kontratazio-organoek administrazio-klausula berezien baldintzen agiriaren karátulan adieraziko dituzte hautagaiei edo lizitatzailiei informazio garrantzitsua eman diezaieketen erakundeak. Informazioa honakoen ingurukoa izango da: ingurumena babesteari eta enplegua babesteko indarrean diren xedapenei buruzko betebeharrak, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa eta emakume eta gizonen berdintasuna; horiek kontratua betetzen den bitartean kontratatutako lanetan aplikatzekoak izango dira.

Aipamen hori «Proiektua eta intereseko gainerako agiriak non azter daitezkeen» azaltzen duen karátularen atalaren azken zatian egin daiteke, honakoa dio:

d) Contratos para realizar las funciones de coordinador o coordinadora de seguridad y salud laborales: VI.1, VI.7 (apt. 4).

e) Contratos distintos de los de suministro cuya ejecución pueda perjudicar el medio ambiente: V.7 y VI.5.

f) Contratos de suministro: V.2 (apt. 2), V.6 (apt. 4).

g) Contratos de formación: V.2 (apt. 4).

h) Contratos que comporten utilización de madera: V.6 (apts. 1 y 4).

i) Contratos de estudios y estadísticas: VII.1 (apt. 3).

Inciden especialmente en criterios ambientales los siguientes epígrafes y apartados: III.1 V.2 (apt. 2), V.3, V.4, V.5, V.6, V.7, VI.4 (apt. 3), VI.4 (apt. 5), VI.5, VII.2, IX.6

Inciden especialmente en la seguridad y salud laborales: III.3, V.1, V.6 (apts. 1, 3 y 4), VI.3 (apt. 3 y 4), VI.4 (apts. 3, 4, 5 y 6), VI.7 (apt. 2, 3 y 4), IX.5, X.

Inciden especialmente en la inserción laboral: IV, IX.2.

Inciden especialmente en la igualdad de mujeres y hombres y en la incorporación de la perspectiva de género: III.2, V.2 (apts. 3 y 4), VI.4 (apt. 1), VII.1 (apt. 3), IX.3

Inciden en la calidad del empleo u otros criterios sociales: V.3, VII.1 (apts. 1 y 2), VIII, IX.1 (apts. 1 y 4)

II

INFORMACIÓN SOBRE LAS OBLIGACIONES RELATIVAS A LA PROTECCIÓN DEL MEDIO AMBIENTE, EL EMPLEO, LA PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES Y LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

(Carátula del pliego de cláusulas administrativas particulares)

Los órganos de contratación señalarán en la carátula del pliego de cláusulas administrativas particulares el organismo u organismos de los que las personas candidatas o licitadoras podrán obtener la información pertinente sobre las obligaciones relativas a la protección del medio ambiente y a las disposiciones vigentes en materia de protección del empleo, condiciones de trabajo, prevención de riesgos laborales e igualdad de mujeres y hombres, que serán aplicables a los trabajos contratados durante la ejecución del contrato.

Tal indicación puede realizarse en la parte final del apartado de la carátula relativo a «Lugar donde se puede... y demás documentación de interés», con el siguiente texto:

«Hautagaiak edo lizitatzailleak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzan honako informazioa lortu ahal izango du: enplegua babesteari buruzko indarreko xedapenak, lan-baldintzak eta lan-arriskuen prebentzioa, kontratua betetzean aplikatu daitezkeenak, eta kontratuaren baldintzen agerietan hala denean aurreikusitako klausula gehigarriak.

Hautagaiak edo lizitatzailleak Ingurumen eta Lurralde Antolakuntza Sailaren Ingurumen Sailburuordetzan, IHOBE sozietate publikoaren bidez, ingurumenaren arloan indarrean diren xedapenei buruzko informazioa lortu ahal izango du, kontratua betetzean aplikatu daitezkeenak eta baita kontratuaren baldintzen agerietan hala denean aurreikusitako klausula gehigarriak.

Halaber, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde autonomoan emakume eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean diren xedapenei buruzko informazioa lortu ahal izango du; xedapen horiek kontratua betetzean aplikatu daitezke, eta baita kontratuaren baldintzen agerietan hala denean aurreikusitako klausula gehigarriak ere.»

III

KONTRATUAREN HELBURUA ZEHAZTEA

(Administrazio-klausula berezien baldintzen agiria-ren karatula)

III.1.- INGURUMENA ETA ALDAERA EKOLOGIKOAK ERRESPETATZEN DITUEN KONTRATUAREN HELBURUA ZEHAZTEA.

1.- Kontratuaren helburua zehazteko orduan kontratazio-organismoek kontuan izango dituzte kontratatu behar dituzten produktu eta zerbitzuen ingurumen-balioa eta, kalitatea-prezioa erlazioak hala aholkatzen duenean, ingurumeneko ezaugarri positiboak dituzten aukeratu dituzte, adibidez:

- CO₂ eta partikulen igorpen txikiak dituzten ibilgailuak.
- Iraunkortasun-irizpideak gehituta diseinatu, eraiki eta birgaitutako eraikinak.
- Energiari dagokionez eraginkorrak, birziklagarritasun-maila handia eta substantzia arriskutsu gutxi dituzten ordenagailuak.
- Basoen kudeaketa iraunkorretik datorren egurrekin egindako bulegoko altzariak.
- Nekazaritza ekologikotik datozen elikagaiak jantoki eta catering-zerbitzuetan,
- Ingurumena gehien errespetatzen duten metodo, praktika eta produktuekin garbitzea.
- Fibra birziklatua duen papera.

Kasu horietan, lizitatzailari eskatzen den ingurumenarekiko jokabidea ulertzea errazteko, kontratuaren helburuaren tituluak ingurumenarekiko jokabide hori aipatzen ahaleginduko da, adibidez, «garbiketa-zer-

«La persona candidata o licitadora podrá obtener en la Dirección de Trabajo y Seguridad Social del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social la información relativa a las disposiciones vigentes en materia de protección del empleo, condiciones de trabajo y prevención de riesgos laborales, aplicables a la ejecución del contrato además de las cláusulas adicionales en su caso previstas en los pliegos del contrato.

La persona candidata o licitadora podrá obtener en la Viceconsejería de Medio Ambiente del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, a través de su sociedad pública IHOBE, la información relativa a las disposiciones vigentes en materia de medio ambiente aplicables a la ejecución del contrato además de las cláusulas adicionales en su caso previstas en los pliegos del contrato.

Asimismo, podrá obtener en el organismo autónomo Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer la información relativa a las disposiciones vigentes en materia de igualdad de mujeres y hombres, aplicables a la ejecución del contrato además de las cláusulas adicionales en su caso previstas en los pliegos del contrato.»

III

DEFINICIÓN DEL OBJETO CONTRACTUAL

(Carátula del pliego de cláusulas administrativas particulares)

III.1.- DEFINICIÓN DEL OBJETO CONTRACTUAL RESPETUOSO CON EL MEDIO AMBIENTE Y VARIANTES ECOLÓGICAS.

1.- En el momento de definir el objeto del contrato, los órganos de contratación tendrán en cuenta el valor ambiental de los productos y servicios que necesiten contratar y, siempre que la relación calidad-precio lo aconseje, optarán por aquéllos que tengan características medioambientales positivas, tales como:

- Vehículos con bajas emisiones de CO₂ y partículas.
- Edificios diseñados, construidos o rehabilitados incorporando criterios de sostenibilidad.
- Ordenadores eficientes energéticamente, alto grado de reciclabilidad y baja presencia de sustancias peligrosas.
- Mobiliario de oficina fabricados con madera proveniente de gestión forestal sostenible.
- Alimentos procedentes de agricultura ecológica en los comedores y servicios de catering,
- Limpieza con métodos prácticos y productos más respetuosos con el medio ambiente.
- Papel con contenido de fibras recicladas.

En estos casos, al objeto de facilitar al licitador o licitadora el entendimiento del comportamiento medioambiental que se demanda, el título del objeto contractual procurará hacer referencia a dicho comportamiento

bitzuen kontratua ingurumena errespetatzen duena», «nekazaritza ekologikotik datozen elikagaien zerbitzuen kontratua» edo «energiari dagokionez eraikin eraginkorra».

2.– Kontratazio-organoa, ingurumena errespetatzen duten alternatibak aurkitzeko merkatua aztertu ondoren, ziur ez baldin badago ingurumenean eragin txikiena duten produktu eta zerbitzuak egoteaz eta horien prezio edo kalitateaz, baldintzen agirian lizitatzailerak alderdi ekologikoa duten aldaerak aurkeztea ahalbidetuko du, baldin eta baloratzeko irizpide objektiboak badaude.

III.2.– KONTRATUAREN HELBURUA ZEHAZTEAN GENERO IKUSPEGIA SARTZEA.

1.– Genero-ikuspegia kontratuaren helburuaren ezaugarri teknikoa denean, berariaz helburua zehaztean barne hartuko da, adibidez, «Kontratuaren helburua da genero-ikuspegia duen herri barruko mugikortasun-plan baten diseinua kontratatzea».

2.– Halaber, kontratuaren helburuak ahalbidetzen duenean, genero-ikuspegiari buruzko aldaerak onartuko dira helburuaren zehaztapenean.

III.3.– GIZARTEKO ETA LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA ERRESPETATZEN DITUEN KONTRATUAREN HELBURUA ZEHAZTEA.

1.– Kontratuaren helburua zehazteko orduan kontratazio-organoeak kontuan izango dituzte kontratatu behar dituzten produktu eta zerbitzuen gizarte-balioa eta segurtasuna eta, kalitatea-prezioa erlazioak hala aholkatzen duenean, arrisku gutxien eta/edo gizarteko ezaugarri positiboak eta osasungarriak dituztenak aukeratu dituzte, adibidez: eraikinaren hartzaileen artean «eraikin gaixoaren sindromea» saihesteko berariaz diseinatu eta eraikitako eraikin eta instalazioak, poluitzaile biologikoak, adibidez legionella, agertzea eta barreiatzea zailtzen duten klimatizazio-instalazioak, irizpide ergonomikoekin diseinatutako ekipo informatikoak eta bulegoko altzariak, inguruko karga elektrostatikoa gutxitzeko sistemak, zarata- eta ozono-igorpen txikiak dituzten inprimatzaileak, segurtasun handiko ibilgailuak, elikagaien menu orekatuak eta nutrizionistek egindakoak, gizarteko eta laneko segurtasuna eta osasuna errespetatzen duten metodo, praktika eta produktuekin egindako garbiketa-lanak.

Halako kasuetan, organo lizitatzailerari kontratuaren helburuan eskatzen den jokoera seguru eta osasungarriaren adostasuna errazte aldera, helburuaren izenburua jokabide seguru eta osasungarri hori honako adierazpenen bidez aipatzen ahaleginduko da: «ingurumena eta gizarteko eta laneko segurtasuna eta osasuna errespetatzen dituen garbiketa-zerbitzuen kontratua», «elikadurari dagokionez orekatua den jateko zerbitzuen kontratua», «altzari ergonomikoen hornidura-kontratua» edo antzekoak.

medioambiental, por ejemplo, «contrato de servicios de limpieza respetuoso con el medioambiente», «contrato de servicios de comida procedente de agricultura ecológica» o «edificio eficiente energéticamente».

2.– En el caso de que el órgano de contratación, tras haber realizado un análisis de mercado en busca de alternativas respetuosas con el medio ambiente, no esté seguro de la existencia, precio o calidad de productos y servicios de menor impacto medioambiental, podrá permitir en el pliego la presentación por las personas licitadoras de variantes con dimensión ecológica, siempre y cuando se disponga de criterios objetivos para su valoración.

III.2.– LA INCORPORACIÓN DE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO EN LA DEFINICIÓN DEL OBJETO CONTRACTUAL.

1.– Cuando la perspectiva de género constituya una característica técnica del objeto del contrato, se incluirá expresamente en la definición de su objeto, por ejemplo, «Es objeto del contrato la contratación del diseño de un plan de movilidad urbana con perspectiva de género».

2.– Asimismo, cuando la naturaleza del objeto del contrato lo permita, se incluirá en su definición la admisión de variantes relativas a la perspectiva de género.

III.3.– DEFINICIÓN DEL OBJETO CONTRACTUAL RESPETUOSO CON LA SEGURIDAD Y SALUD SOCIAL Y LABORAL.

1.– En el momento de definir el objeto del contrato, los órganos de contratación tendrán en cuenta el valor social y la seguridad de los productos y servicios que necesiten contratar y, siempre que la relación calidad-precio lo aconseje, optarán por aquéllos que entrañen menor peligro y/o tengan características sociales positivas y más saludables, tales como: edificios e instalaciones especialmente diseñados y contruidos para evitar el «síndrome de edificio enfermo» en sus ocupantes, instalaciones de climatización que dificulten la aparición y difusión de contaminantes biológicos, p.e. la legionella, equipos informáticos y mobiliario de oficina diseñados con criterios ergonómicos, sistemas de reducción de carga electrostática ambiental, impresoras con bajas emisiones de ruido y ozono, vehículos con clasificación de seguridad elevada, menús alimentarios equilibrados y confeccionados por nutricionistas, tareas de limpieza con métodos, prácticas y productos más respetuosos con la seguridad y salud social y laboral.

En estos casos, al objeto de facilitar al órgano licitador el entendimiento del comportamiento seguro y saludable que se demanda al objeto contractual, el título del objeto procurará hacer referencia a dicho comportamiento seguro y saludable mediante expresiones como: «contrato de servicios de limpieza respetuosos con el medioambiente y la seguridad y salud social y laboral», «contrato de servicios de comida nutricionalmente equilibrada», «contrato de suministro de mobiliario ergonómico» o similares.

2.- Kontratazio-organoa, gizarteko eta laneko segurtasuna eta osasuna gehien errespetatzen duten alternatibak aurkitzeko merkatua aztertu ondoren, ziur ez baldin badago laneko osasunean eragin txikiena duten produktu eta zerbitzuak egoteaz eta horien prezio edo kalitateaz, baldintzen agirian prebentziorako alderdia duten aldaerak aurkeztea ahalbidetuko du, baldin eta baloratzeko irizpide objektiboak badaude.

IV

EZGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN
LANERAKO ZENTRO BEREZIENTZAT,
ETA GIZARTERATZE- ETA LANERATZE-
ENPRESENTZAT GORDETAKO KONTRATUAK EDO
BABESTUTAKO LAN-PROGRAMEN ESPARRUAN
GAUZATZEKOAK

(Administrazio-baldintza berezien agiriaren azala)

1.- Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sektore publikokoak diren sailek, erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko ente publikoek eta entitateek zenbait kontratu gorde behar dituzte urtero erregistraturiko gizarteratze-enpresentzat, ezgaitasunen bat duten pertsonen lanerako zentroentzat edo babestutako lan-programen esparruan gauzatu behar direnentzat.

Erreserba horren kopuru ekonomiko orokorra eta sektoriala urtero ezarriko du Ogasun eta Herri Administrazio Sailak. Horretarako, erreserbaren onuradun izango diren taldeen laneratzearen gaian eskudun diren sailek, sektore horien ordezkari diren enpresa-elkarteei kontsulta egin ondoren, aurreko urteari dagokion eta erreserbaren onuradun diren enpresa-sektore ezberdinetako negozio-kopurua aurkeztuko diote Ogasun eta Herri Administrazio Sailari.

2.- Kontratu txikien edo kopuruaren arabera negoziaturiko prozeduren bitartez bakarrik aplikatuko da erregistraturiko gizarteratze-enpresentzako utzitako erreserba. Horretarako, ezingo da kontratua zatitu kontratuen legediak zatitzeari buruz ezarritako aurreikuspenak urratuz.

Eragindako langileriaren 100eko 70a gutxienez ezgaitasunen bat duten pertsonak badira eta haien gabezien garrantziagatik edo larritasunagatik jarduera profesional bat baldintza normaletan garatzea ezinezkoa badute, edozein kopuruko kontratuak aplikatu ahalko zaizkie Lanerako Zentro Bereziengatik utzitako erreserbei edota babestutako lan-programen esparruan gauzatu beharrekoak.

3.- 2007ko maiatzaren 22ko Gobernu Kontseiluaren Akordio bitartez onartutako administrazio-baldintza berezien agiri-ereduen azalaren 5. atalak aukera ematen du erreserba aplikatzeko, kopuruagatik publizitaterik gabe negoziatzen diren prozeduretan.

2.- En el caso de que el órgano de contratación, tras haber realizado un análisis de mercado en busca de las alternativas más respetuosas con la seguridad y salud social y laboral, no esté seguro de la existencia, precio o calidad de productos y servicios de menor impacto en la salud laboral, podrá permitir en el pliego la presentación de variantes con dimensión preventiva siempre y cuando se disponga de criterios objetivos para su valoración.

IV

RESERVA DE CONTRATOS A CENTROS
ESPECIALES DE EMPLEO DE PERSONAS CON
DISCAPACIDAD, A EMPRESAS DE INSERCIÓN
SOCIO LABORAL, O A LA EJECUCIÓN EN EL
MARCO DE PROGRAMAS
DE EMPLEO PROTEGIDO

(Carátula del pliego de cláusulas administrativas particulares)

1.- Los departamentos, organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y entidades pertenecientes al sector público de la Administración de la Comunidad Autónoma deben reservar anualmente determinados contratos a empresas de inserción registradas, a centros especiales de empleo de personas con discapacidad, o para la ejecución de dichos contratos en el marco de programas de empleo protegido.

La cuantía económica global y sectorial de la referida reserva se fijará anualmente por el Departamento de Hacienda y Administración Pública. A tal efecto, los departamentos competentes en materia de inserción laboral de los colectivos beneficiarios de la reserva, previa consulta con las asociaciones empresariales representativas de dichos sectores, presentarán al Departamento de Hacienda y Administración Pública la cifra de negocios correspondiente al año anterior de los distintos sectores empresariales beneficiarios de la reserva.

2.- La reserva a empresas de inserción registradas se aplicará únicamente a través de contratos menores o procedimientos negociados por razón de la cuantía. Para ello no podrá fraccionarse el contrato con incumplimiento de las prevenciones que respecto al fraccionamiento establece la legislación de contratos.

La reserva a Centros Especiales de Empleo, o para la ejecución en el marco de programas de empleo protegido, cuando al menos el 70 por 100 de las personas trabajadoras afectadas sean personas con discapacidad que, debido a la índole o a la gravedad de sus deficiencias, no puedan ejercer una actividad profesional en condiciones normales, podrá aplicarse a contratos de cualquier cuantía.

3.- El apartado 5 de la carátula de los modelos tipo de pliegos de cláusulas administrativas particulares aprobados por Acuerdo de Consejo de Gobierno de 22 de mayo de 2007 permiten señalar la aplicación de la reserva en los procedimientos negociados sin publicidad por razón de la cuantía.

4.– Erreserbaren onuradun diren enpresek aplikatu beharreko legedian ezarritako betekizunak bete beharko dituzte, eta haien helburuak edo jardunak (arau erregulatzailerekin, estatutuekin edo sorrerako arauekin bat etorritik) zerikusia izan beharko du zuzenean kontratua- ren xedearekin.

Aipatutako erreserba betez kontratatuak izan nahi duten entitateak Ogasun eta Herri Administrazio Saila- ren 1998ko otsailaren 4ko Aginduak araututako Kon- tratisten Erregistroan izena emanda egon beharko dira eta, hala badagokio, baita abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretuan zehaztutako Lanerako Zentro Bere- zien Erregistroan edota abenduaren 26ko 305/2000 Dekretuak araututako Laneratzeko Enpresen Erregis- troan ere.

6.– Erreserbarako adierazitako portzentajea ez apli- katzea justifikatzeko arrazoi bakarrak honakoak izango dira: kontratu txikiaren irudia edo adierazitako kon- tratazio-bolumeneko kopuruaren araberrako prozedura negoziatua aplikatzea legez ezinezkoa izatea, eskaerak aurkeztu ziren espedienteetan eskaintza onargarriak ez aurkeztea, edo Kontratisten Erregistroan erreserba dai- tezkeen kontratuen xedearen betekizunak eta egokitzza- pena betetzen duten enpresak izena ez ematea.

V

ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

(Betebehar tekniko berezien agiria)

